



EHKOLEKTIBOAK UTZIA

EHKOLEKTIBOAK

Bertako zerealen trukean



Garazi Zabaleta
@tirikitran

“Zereal-okin, zereal-abeltzain zuzeneko trukaketak 2016”. Izen hori daraman e-postak nire arreta deitu du postontzia begiratzeko nentzilela. Hor sartu naiz kuxkuxeatzera, eta taula batekin egin dut topo: erosi/saldu, produktua eta barrietatea, kantitatea...

EHKolektiboak bertako zereal trukaketen bigarren deialdia antolatu du uztailean. Lehenengoa ekainean egin bazuten, orain, zerealen uzta jasoko dela aprobetxatuz (batez ere garia, ogigintzarako) parte hartzeko ateak berriro irekitzea pentsatu dute, jende gehiagok bat egingen duelakoan.

Erosi, saldu, edo zergatik ez trukatu?

“Ikusi dugu askotan ez dugula jakiten nork daukan produktu jakin bat eta noiz, nora jo dezakegun”, azaldu digu Aloña Gonzalez Bereau EHKolektiboako kideak. Ekaineko deialdia lehena izanik, aurrera begira ekimenean jende gehiagok parte hartu dezakeela uste dute. Horregatik erabaki dute deialdi berria egitea.

Baina nola funtzionatzen du kontuak? Bada, inkesta bidali dio EHKolektiboak interesa izan dezakeen jendeari. Parte hartu nahi duenak hori bete eta uztailearen 15a baino lehen bidali beharko du: “Gure lana informazio guztia biltzea izanen da, ondoren parte hartu duten guztiei

taula bat bidaltzeko saltzeko/erosteko/trukatzeko dauden produktu guztiekin”.

Trukaketak egiteko harremanetan jartzea, berriz, norberaren esku egonen da. “Askotan hobeto ulertzen dugu elkar zuzeneko harremanetan jartzen garenean”, dio Gonzalez Bereauk.

Baserritar, okin, eraldatzaile nahiz abeltzaintzat

Aurreko deialdian, batez ere, okinek eta eraldaketan dabilzanek hartu bazuten parte, abeltzaintzat ere oso interesgarri izan daitekeela uste dute antolatzailleek: “Garia egiten duenak askotan badu alpapa, edo belar bazka, eta hori abeltzaintzat aukera oso ona izan daiteke”.

Gure hartu-emanak ahalik eta gertuenera ekartzeko helburuarekin abiatu dute ekimena, distantziak mozteko. Agroekologiaren garapena eta lanketa egitea baita EHKolektiboaren ardatz nagusia, baina betiere ondoko irizpideekin ulertuta: ekologikoa, tokikoa, sasoiakoa. “Nekazaritza ekologikoa ingurumena eta gu guztion osasuna zaintzen duen eredu da, baina herri txikien biziraupena, gazteen nekazaritzarako sarbidea edota bertako ekoizpena eta kontsumoa ere bermatu beharra du, besteak beste. Kultura baten berreskurapena da, azken batean”. ■



ALZAN PORRU

Irribarrearen baratzea

Marraskilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,
“mattin” Martiarena, Ainara Azpiazu,
Antton Olariaga, Zaldieroa,
Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura

iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Uztailak 22: Oñati.

Lurgorri dendaren inaugurazioan
(Goribar auzoa, 15), 17:30ean.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545